


ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2004KO URTARRILA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %2,0 igo ziren 2004ko urtarrilean

Azken hamabi hilabeteetan (2004ko urtarrila, 2003ko urtarrilarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuek %1,9ko gehikuntza izan dute.

2004ko urtarrilean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %2,0 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urtarrilerako urte arteko tasa %1,9ra iritsi zen, EUSTATEN datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1995-2004



(*)Eskaintako hazkunde urtarrileko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2004ko urtarrilean, lan-eskuaren kostua %4,0 handitu da; lehengaien kostuak, berriz, %0,6.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera berdina izan dute: aurreko hilaren aldean %0,6 igo da Eraikuntza eta beste horrenbeste Obra Zibileko lehengaien kostuak ere. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratu gero, zeinu desberdineko ibilbideak izan dituztela ikusiko dugu: eraikuntzako lehengaien kostuak %0,7 hazi dira, eta obra zibilekoak, aldiz, %-0,2ko jaitsiera izan dute.

Urtarrilean prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan dituzte: *produktu asfaltikoak* (%3,3), *garbitzeko eta txukuntzeko materialak* (%2,9), *ateratze-agregatuak* (%2,5), *burdina eta altzairua* (%2,3) eta *leherkariak eta gasak* (%2,2) lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan dituzte *bulego-materiala*

(%-2), *pinturak eta bernizak* (%-0,8) eta *plastikozko hoditeria eta isolatzaile termikoak* (%-07) lehengaiak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *garbitasuneko eta gorputz-garbitasuneko materialak* (%7,9), *karea, igeltsua eta eskaiola* (%6,4), *burdina eta altzairua* (%4,9), *metalezko hoditeria* (%3,4) eta *ateratze-agregatuak* (%2,4) lehengaiak. Aitzitik, urteko arteko prezioetan (2004ko urtarrila, 2003ko urtarrilaren gainean), murrizketak izan dituzte *produktu asfaltikoak* (%-10,8), *petroliotik eratorritako produktuak* (%-8,9), *laneko arropak* (%-4,4), *energia elektrikoa* (%-3,8) eta *plastikozko hoditeria eta isolatzaile termikoak* (%-3,3) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2004KO URTARRILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 1995= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	124,8	2,0	1,9	2,0	
ERAIKINAK	125,0	2,0	2,1	2,0	
OBRA ZIBILA	124,2	2,0	1,5	2,0	
LEHENGAIEN KOSTUA	114,6	0,6	0,5	0,6	
ERAIKINAK	114,9	0,6	0,7	0,6	
OBRA ZIBILA	113,9	0,6	-0,2	0,6	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	141,3	4,0	4,0	4,0	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Enrique Morales Zubizarreta

Tel.: +34-945 01 75 05. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es